

# "OLERTI", aldizkari barria

Gizona geienez, naiz-ta gorako egiña izan, beera begira bizi da. Orixen numbait bere zoria. Ba-dira, alan be, olakoen arteko izan gura ez dabenak, ots, abere antzekoen natura ta joka-bideari muxin egiñik, bestelako zaretasun eta gar batzuetan buru-belarri sartuta bizi diranak. Nundik norakoak, zein motakoak ete doguz oiezko gar, zaletasun, lera ta jo-muga oneik? Gai ta gorputzez gainetikoak, noski, gogo ta arima alderdikook. Eta gure nortasuna dagien atal bi oneitatik, arimea dogu bikainago.

Ez dituzu, egia esan, ondo ikusiak zaletasun oneik. Beste gizaldi ta aroetan be izan ziran, baiña gaur batez be bee ontako lan, naigabe, kezka ta abar dira asko ta askorentzat buru-austerik andienak: beste batzuentzat, gizarte-auzi, diru-gorabera, jolas, atsegin eta ostekoak. Orraitiño, zorionez, ba-da oraindik irugarren talde bat be, arazo ta kezka guztion gainetiko zerbaitek kezkatu-rik, larri-mindurik, mendi-tontorretako sai egalari antzera goi-zale dabiltzanak. Bertsolariak eta olerkariak dozuz oneik. Beti izan dira gizarte-an eta izango be bai. Gurean geiago. Nok ez ditu senti ta oartu, egunokaz batez be, emen Bizkai aldean, bertsolariak dardarazutakó giro beroaren euskal zirrara goxoak?

Iñor ba-da bertso-zale, euskalduna dogu. Ba-dau numbait zer-edo-zer, zerbaiten eragin samurra biotz-azpian, eta beste batzuen doinu enaigarria entzun ordukoxe, beste munduko zerbaitek ikututa lez, erdi totel ta herba barik geratu oi yaku. Ez da itzal-dirik, ez soñurik, ez beste ezer, bertsolari batek laingo indar-eragin barrenkoia dau-nik. Olerkariak be, naiz-ta goragoko mailan, orobat esan bear. Au be noznai dogu jagi ta goi-garrez adoretua, beste munduko gizona.

Ainbat olerki ta bertso emon izan ditugu KARMEL'en, orrialde oneitan. Aurrerantzean be bardin egingo. Baiña zail, oso gaitz danak argitara emotea, andik eta emendik metaka eltzen yakuzalako. Enskeraz, antza, beste izkuntzetan baiño errezago neurtu da-roaguz bertsoak. Ortik sortzen ete ugaritasun au? Ba-leiteke. Bai ta ba-leiteke, biotz-zokondoan urduri ta artega guztiok darab-ilgon olerki-zaletasunagaitik be. Danok darabilgu, bai, olako kezka edo min bat, naigabe edo poztasun bat; eta barne-muñean

sortutako zauskada ori zelanbait azaldu bear, argitara atera bear. Zelan? Olerkiz, bertsoz, errez ta erosoan.

Berezko gar au ez itotearren, biotz-ustutze au ez galtzearren, barne-sen ta irudikizun sorgiñez gatzaturiko lanok, beste askoren gogo-kilikagarri, argitara emotearren, KARMEL'en seme lez, olerki ta bertso-aldizkari barri bat sortzea erabagi dogu. OLERTI deritxoke. Onela dagigularik, euskal idazle askotxoren guraria asetzen dogu-la guk uste.

Aldizkari barri onen gaia? Olerki utsa, poesi utsa, nai neurtua nai itz lauz. Olerkiak, ostera, batzuk jatorrak izango dira, beste batzuk alboetako izkuntzetatik itzuliak. Bai ta gure olerkari ta bertsolarien bizitz-zertzelada ta xeetasunak be aipatuko doguz, onein idaz-lanak albai zeaizen azterkatu ta aitzen emonik.

Beste arlo edo sail bat be, oindiño godeltu bagea, astindu ta urratuko dogu: au da: ederra zer dan azalduko dogu, inguru ta alderdi guztietatik arretaz so egiñik; ederra zelan adi-erazo bear dan; itzak zelan neurtu bear diran olerki edo poesi bat egitean, zeintzuk arau ta lege gorde bear diran, a abar, eta abar. Gai onetaz ez dau oindiño gure euskeran iñok be idatzi, ez ezer esan, Orixek zerbaitek ezik.

OLERTI, lenengoz beintzat, iru illabetero argitaratuko. Baiña urtean liburu mardula osotuko dau, 256 orrialdekoa gitxienez, ale bakotzak 62 izango ditu-ta. Urtereko ordainsaria: 40 pezeta, aurretiaz ordaindu bear dana. Olerkia atsegin ba'yatuz, eskatu egizu gaurtik; ez yatuz damutuko.

Azkenez, euskal olerkari, bertsolari ta eder-zale guztiak zabal-zabal daukiez OLERTI-ren ateak. Bakotzak, nai dauana, bialdu bildur bage, txukun, dotore, olerkitsu. Eta guk biotz-samur eskertuko.

